



## Arrautzaren Festa egingo dute Zerkausian apirilaren 5etik 8ra

**TOLOSA** ▶ Jatetxe nagusietako sukaldariek prestaturiko menu bereziak dastatu ahalko dira


**HELBURUA** ▶ Larunbateko azokan produktu garrantzitsuenetakoa den arrautza omendu nahi dute ▶ 2

**TOLOSA** ▶

**Etxeratek «urte gogorra» izan dela dio**

Leidorren ehunka lagun bildu ziren nazio biltzarrean ▶ 3

**VILLABONA-ZIZURKIL** ▶



NAIARA GARZIA


**Danena Olaederrako guztiak Espainiako Txapelketan**

Martinezek lehen postua juniorretan ▶ 5

**AMEZKETA** ▶

**Berria Txapelketatik at etxekoak**

Zizurko bi txapel ere irabazi dituzte Zazpi-Itturrikoek ▶ 7



## Aizkardiren ibilaldia lokatzez betea, baina jendetsua

**VILLABONA** ▶ 39. mendi ibilaldia antolatu zuen herenegun Aizkardi Mendi Elkartek. Bi ibilaldi ziren aukeran, bata luzea 43 kilometrokoa, eta bestea motza, 23,5ekoa. Denera, 470 mendizalek hartu zuten parte, eta horietatik gehienek amaitu zuten ibilal-

dia. Hori bai, azken egunetan egindako eguraldi txarra dela eta, zailtasun handiei egin beharra izan zieten aurre mendizaleek, elurra eta lokatza, esaterako. Antolatzaileak «gustura» azaldu dira jendearen parte-hartzearekin. **IBON AZPILIKUETA** ▶ 4



POLITIKA ▶

ERREDAKZIOA

*Etxean eta bizirik* lelopean euskal preso politiko eta iheslarien ehunka senide eta lagun bildu ziren herenegun Leidor antzokian, Etxeraten seigarren biltzar nazionalan. Hemen bildu zirenek, 2006 urteko balantze orokorra egitea eta aurkeztea izan zuten ardatz.

Etxeratekoen esanetan, ia zuro urtea «oso latza» izan zen. Izan ere, «azken hilabeteek argi erakutsi dute estatuen indarkeriak ez duela etenik izan, eta Gobernu Espainolak zein Frantsesak indarrean duten politikak sufrimendua besterik ez duela ekartzen», gaineratu zuten.

Ondorioztatu zutenaren arabera, euskal herritarrek preso eta iheslari politikoen alde sustatzen duten herri presioak estatuak mugiaraztea lortzen duela. Honekin batera, baikor agertu zen Estanis Etxaburu, elkarteko bozeramailea. Horren arrazoi gisa agertu zuen Iñaki De Juana Euskal Herrira ekartzea eta Filipe Bidartek askatasuna berreskuratzea.

Bestalde, oraindik indarrean dagoen sakabanaketa politikak dakarren «odoluste ekonomikoa» salatu zuten, eta *Jarrai-Haika-Segi* auziko gazteen

# «Urte gogorra» izan dela dio Etxeratek

## Herenegun, Leidor antzokian ehunka herritar bildu ziren Etxerat elkartearen seigarren nazio biltzarrean

sakabanaketan azpimarraketa berezia egin zuten. Honez gain, Espainiako estatuan eta Frantsesean sakabanaturik

dauden euskal preso en egoera ere aztertu zuten Nazio Biltzarrean. Joan den urtean Biarritzen egindako biltzarraz

geroztik hamabi hilabete igaro ondoren, «urte gogor» bezala deskribatu dute Etxeratekoek 2006a.



Etxerateko bozeramaile eta ordezkariak herenegun egindako agerraldian. I. AZPILIKUETA

ARETO FUTBOLA ▶

## 7 eta 4 garaitu dituzte horitxoek gallartakoak

ERREDAKZIOA

Jaitsieratik ihes egin nahian dabilen Aldatz Goraren bisita jaso zuen Laskorainek pasa den larunbatean, Usabal. «Gogotik izerditu ostean», 7 eta 4 irabazi zuten norgehiagoka. Garaipen berri honekin, Ikastolako taldeak azken lau jardunaldietan hamabi puntuetatik hamabiak poltsikoratu ditu eta sailkapeneko seigarren postuan da.

Sasoi betean egonagatik horitxoek ez zuten larunbaterko neurketa ondoegi jokatzen asmatu. Enkarterrietako taldeak kantxa guztian kokatutako defentsa batekin horitxoei baloiaren jabetza kendu zien eta arazo larriak sortu zituzten.

Lehenengo zatian batez ere, Ikastolakoek ez zioten defentsa honi erantzun egokirik eman. Nola hala, binok berdinketarekin aldagelara ziren bi taldeak.

Bigarren zatiko hasieran, gauzek berdin jarraitu zuten eta zorzea ere lagun izan zuten bisitariek 2 eta 4 aurreraztea erdietsi zutelarik.

Dena den, norgehiagoka erdi galduta ikusteak, Laskoraineko «amorrua» piztu zuen. Honela, ordura arte etxekoek erakutsitako jokoa ausartagoa bilakatu zen eta neurri berean bizkaitarren «jite oldarkorra» portaera lasaigoa.

Denbora kontua izan zen beraz markagailuaren itzulipurdia. Hala, 5 eta 4an jartzea lortu zuten. Ondoren, amaierarako hiru minuturen faltan, Telletxoek seigarrena sareratu zuen eta partidaren hondarrean Yustosek borobilduko zuen «gol festa» zazpigarrenarekin, kontraeraso bat ederki amaituaz.

SASKIBALOA ▶



## Tolosaldeko jokalariek Bilbao Basket-ekoekin lehiatu

**E. Ezeiza** ▶ Lagun Aro Bilbao Basket, ACBko saskibaloitza etorri zen atzo Usabal kiroldegira. Tolosako bi taldeekin kadete mailako mutilekin eta infantiletako neskekin entrenamendu-erakustaldia egin zuten. Partidaren ostean opariak, autografoak eta argazkiak banatu zituzten gaztetxoaren artean. E. EZEIZA

DUATLOIA ▶

## Oñatikoan estreinatu dira Tolosaldeko TTkoak

Eskualdekoen artean, Patxi Urizar billabonatarra hirugarren geratu zen

ERREDAKZIOA

Hilaren 17an jokatu zen Oñatiko XVI. Duatloia 8-40-4 distantzian. Guztira 264 partaide izan ziren, eta tartean Tolosaldeko Triatloi Taldekoak eta eskualdeko zenbait lagun iparraize finari aurre eginez.

Hotzagatik edo, lasterketa izugarri azkarra izan zen (zirkuituko errekorren denboran ibili ziren) eta lehen metroetatik gogor lehiatu ziren. Abiadura azkarraren adierazle da, mantsoen ibili zirenak ere, kilometroa 4 minutuan egin zutela.

Bizikletako saioan 40 kilometro zituzten eta tartean desgargako aldapa gogorrak.

Azken zatian, eskualdeko mutilen artean azkarrena Patxi Urizar (Kraff-Aletiko) izan zen, 2. iritsi zen baina azken korrika saioaren ostean hirugarren sailkatu zen. Minutu batzuk be-

randuago 14., 15., 16. postuetan iritsi ziren Egoitz Zalakin (Kraff-atletiko), Luis Mari Urizar (Kraff-Aletiko) eta Aitor Tejeria (SM-Lagunak) ia talde berean.

Aimar agirresarobe 46. (Kraff-atletiko), Ibon gonzalez 69. (Tolosaldeko TT), Unai Aizpuru 88. (Tolosaldeko TT), bi urte eta gero berriro hasi delarik Duatloi-Triatloi zirkuituan eta aurtengo ekainean Niza-ko Iron Man-ean parte hartuko du. 117. Alberto Vaquero (Tolosaldeko TT), bere lehen duatloian, Ion Marin (Tolosaldeko TT), bezala, honek ere bere bizitzako lehena 166., eta pixka bat atzerago 192. eta 194. bi futbolari ohiak, Edu Gonzalez (Tolosaldeko TT), eta Xabier Beldarrain (Tolosaldeko TT).

Hurrengo jardunaldiak Azkoitia, Durangon eta Barakaldon izango dira.

**Tolosako Udala**

IRAGARKIA

**VOITH-GOROSTIDI EREMUKO TOKI-BABESEKO ETXEBIZITZEN ESKATZAILAEN BEHIN-BEHINEKO ONARTU ETA BAZTERTUEN ZERRENDEAN ARGITARATZEA.**

- Jendureko erakustaldia: 2007ko martxoaren 27tik apirilaren 16ra (biak barne).
- Leku: Tolosako udalaren iragarki taulan eta web orrian. ([www.tolosakoudala.net](http://www.tolosakoudala.net))
- Erreklamazioak aurkezteko azkeneko eguna: 2007ko apirilaren 16a.

Tolosa, 2007ko martxoaren 26an  
ALKATEA  
Jokin Bildarratz Sorron



VILLABONA ▶ MENDIA

# Mendian gora, oztopoei aurre eginez

470 parte-hartzaile izan zituzten Aizkardi elkarteak herenegun antolatu zituen bi mendi martxek

## ERREDAKZIOA

Aizkardi Mendizale Elkarteak herenegun 39. mendi ibilaldia antolatu zuen, eta aurreko egunetan egindako eguraldi kaxkara kontuan izanik, «arrakastatsua» izan zen. Izan ere, 470 parte-hartzaile izan ziren guztira.

Iaz bezala, aurten ere bi ibilbide izan zituzten aukeran mendizaleek; luzeak 43 kilometro zituen, eta motzak, berriz, 23,5 kilometro. Bi ibilaldiak Villabonan hasi eta bukatu ziren. Mendizaleei dagokionez, ibilaldi luzean 280 parte-hartzaile izan ziren, eta horietatik, Bizkaitik eta Arabatik joandakoak ziren asko; ibilaldi motzean, bestalde, 190 ziren, «inguruko mendizaleak, besteak beste».

Antolatzaileak «gustura» azaldu dira parte-hartze kopuruarekin; «aurreko egunetan egindako elurragatik-eta jende gutxiago animatuko zela uste genuen, baina ez zen horrela izan; gainera, Villabonatik ibilaldiak egitera irten zirenetatik, oso gutxi izan ziren erretiratu eta bide osoa amaitzeko gai izan ez zirenak». Hala, bidea oso egoera onean ez bazegoen ere, —elurrez eta lokatzez beterik zegoelako— min hartutakorik ez zela egon ere aziparratu nahi izan dute Aizkardikoek.

Kuriositate gisa, Bizkaitik etorri zen 80 urteko gizoneko baten parte-hartzea nabarmendu dute Mendi Elkartek. Ibilaldi luzean hartu zuen parte mendizale honek, eta baita amaitu ere.



Indarberritu beharra. Oso garrantzitsua da horrelako ibilaldiak egiterakoan indarberritzea. IBON AZPILIKUETA



berria euskarazko zinemarekin

MARTXOAREN 24AN



filma DVD formatuan

MARTXOAREN 31N

filma DVD formatuan




+ 6,95€

Harpidedunentzat, %20 merkeago  
bi DVDak 11 euro

Eskaera egiteko, martxoaren 16tik 31 arte, 943 30 43 45 telefonora deitu  
edo [www.berria.info](http://www.berria.info) izena eman.

OHARRA: biltegiok bukatu arteko eskaintza

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**



Baldintza gogorak. Elurra eta lokatza izan ziren nagusi. I. AZPILIKUETA



Adin guztietakoak. Gazteenetatik hasi eta helduetara. IBON AZPILIKUETA

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

# Danena-Olaederrako guztiak Espainiako Txapelketara

Teddy Martinezek lortu zuen lehen postua Euskadiko Junior Txapelketan; Gipuzkoako selekzioa aise gailendu zen

IMANOL GARCIA

Danena-Olaederrako pultsulariek emaitza bikainak lortu zituzten Euskadiko Junior Txapelketan. Partaide guztiek lortu dute Espainiako Txapelketarako sailkatzea. Gipuzkoako taldea erraz gailendu zen. Selekzioko bost partaideak Danena-Olaederrakoak ziren. Horrez gain, bakarkako sailkapenean lehenengo sei postuetan sartu ziren eskualdeko pultsulariak.

Gipuzkoako selekzioaren ondoren, Nafarroa, Araba eta Bizkaia sailkatu ziren. Bakarka, lehenengo postua Teddy Martinezek lortu zuen. Danena-Olaederrako beste pultsularien sailkapenak ondorengoak izan ziren: Igor Sasiain, bigarren; Jon Ander Iriarte, hirugarren; Angel Martin, bosgarren; eta Iker Hernandez, seigarren. Guztiek beraien markak hobetu zituzten. Bestalde, Jon Lopezek Espainiako Txapelketarako sailkatzea ere lortu zuen. Euskadiko Txapelketan ez zuen parte hartu, baina aukera izan zuen txapelketa ofizial batean gutxieneko marka lortzeko.

Teddy Martinezek bere markak hobetzearekin batera EAE-



Jon Lopezek gutxieneko marka lortu zuen Espainiakora joateko. N.G.

ko marka berria ezarri zuen junior mailan, hau da, 20 urte azpikoetan, total olinpikoan. Arrankadan 135 kilo igo zituen eta bi denboratan 170 kilo. Bi horietan egungo markak berdindu zituen, baina, esan bezala, bi horiek batuta, hau da, total olinpikoan, 305 kiloko marka berria ezarri zuen. Marka hori bera EAeko errekorra da edozein adin tarte kontuan izanda. «Madrilen lan handia egiten ari da», azaldu du Danena-Olaederrako prestatzaile

Batis Kortajarenak Martinezek buruz. «Bere markak hobetzen ari da eta ezaugarri egokiak dauzka gehiago hobetzeko».

Taldeak egindako lanari buruz oso pozik zegoen Kortajarena. «Denek beraien markak hobetu dituzte eta horrek esan nahi du entrenamenduak eta prestaketak ondo egiten ari garela», dio. «Orain Espainiako Txapelketan emaitza onak lortzea dugu helburu». Horretarako bost aste itxaron beharko dituzte.

ANOETA ▶ GIZARTEA

## Marrazki lehiaketako lan sarituak ur biltegiko hormetan irudikatuko dituzte

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak eta Ikastolak marrazki lehiaketa bat antolatu zuten 6 urtetik 12 urterarteko ikasleen artean. LH1tik LH6ra bitarteko 109 ikaslek hartu zuten parte. Uraren eta urtegiaren gaiaren inguruan hausnarketa desberdinak biltzen dituzten irudiak egin zituzten marrazkilariek. Egun gutxi berru ur biltegi berriaren hormak erakustoki aparta bihurtuko dira lehiaketako hiru irabazlearen marrazkiak dimentsio han-

dian behin betirako margotua izango dira eta.

Epaimahaia Iker Etxeberria, Helene Colomo eta Alexander Irurzun saritu zituen. Margolari profesional bat arduratuko da beraien marrazkiak ur biltegiko hormetan eskala handian marrazteaz. Lehiaketaren helburu nagusia, antolatzaileek azaldu dutenez, uraren balioaren inguruan hausnarketa bat planteatzea izan da, norbanako esperientziak islatuz eta era publiko batean, ur biltegiko hormak era-

biliz, gainontzeko ikasle gazteei eta helduei urak duen garrantzia helarazteko asmoarekin. Ur Partzuergoak ikasleen arte-lanak eskala handian eta euskarri original batean ikusteko aukera eskaintzen duen ekimen honen alde agertu zen.

Aurreko osteguna, hilaren 22a, Nazio Batuek izendatutako Uraren Nazioarteko Eguna izan zen. Egun horrekin bat eginik, Anoetako haurrek eginiko lan guztiak Abraham Olano kiroldegiaren ikusgai daude larunbata arte.

VILLABONA ▶ MAHAI TENISA

## Olaederra K.E.k beste garaipen bat lortu du

4 eta 2 irabazi zion Hondarribia Itsas Izarri, bere etxean, bosgarren jardunaldian



Villabonako eta Hondarribiko taldeko jokalariek. HITZA

ERREDAKZIOA

Mahai teniseko Olaederra K.E.ak beste garaipen bat lortu zuen liga autonomikoan. Oraingo honetan Hondarribia Itxas Izar taldearen etxean lortu zuen. Horrela, Villabonako taldea lehen postuan mantentzen da bost jardunaldien ondoren, Guretalde.net bizkaitarrekin berdinduta. Hain zuzen, talde horren aurka jokatu behar dute hurrengo jardunaldian. Hori apirilaren 14an

izango da. Norgehiagoka horretan erabakiko da bi taldeetako zeinek lortzen duen lehen postuan gelditzea.

Hondarribian lortutakoa garaipen estua izan zen. 4 eta 2ko markagailua lortu zuten Olaederrako Txema Armeniak, Iker Mugertzak, Ion Caminosek eta Raul Lopezek. Bi taldeetako jokalarien arteko partidak zahazterakoan erabiltako planteamenduak eraman zituen Villabonakoak norgehiagokan gailentzea.

MUSIKA ▶

## Loatzoko ikasleen emanaldiak egunotan

ERREDAKZIOA

Loatzo musika eskolako ikasleak Aste Santuko emanaldiak ematen ari dira egunotan. Atzokoan Adunako elizan egin zuten emanaldia. Gaur, berriz, Ibarrako Kultur Etxean egingo dute, 19:00etan. Bihar, Villabonaren txanda izango da. Kasu honetan, eskusoinuko ikasle-

ek audizioa emango dute, musika etxean, 18:00etan.

Hurrengo kontzertua Alegrían izango da. Hori etzi izango da, 18:30ean hasita, Kultur Etxean. Egun horretan ere, Amasan, 18:00etan, elizan emango dute audizioa. Azken emanaldia Altzon izango da, ostiralean, 18:00etan Lizarbe etxean.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## BERASTEGI ▶ NATURA

# 'Zabor Bilketa Eguna' egingo dute larunbat honetan herritarrek

Aldin Elkarteak antolatzen du bigarren urtez jarraian eta auzolanean «herriko mendiak txukun» utzi nahi dituzte



Bigarren urtez Zabor Bilketa Eguna antolatu dute larunbatean. Ihazko eguna traktore eta guzti. HITZA

## ASIER IMAZ

Aldin Elkarteak Zabor Bilketa Eguna antolatu du larunbat honetarako. Berastegiko mendiak garbi eta txukun lelo dute, herritar guztiei deialdia egin die antolatzaileek, goizeko 9:00etan herriko plazara «ager daitezela» zabor bilketan laguntzeko. Arropa eta eskularru «aproposak» ematea komenigarria dela jakinarazi duten Aldinekoek.

Lehengo urteko garbiketa saioak herritarren artean izandako «harrera ona eta arrakasta» ikusirik, aurten ere Zabor Bilketa Eguna antolatzen jarraitzea erabaki dute Aldin Elkarteak. Joan den urtean, Antsolizko erreka eta Atxokorbe inguruan aritu zen herri-  
 dea garbiketa lanetan, aurten berriz, Laskako erreka eta Epeleta ingurunean bilduko dituzte zaborrak. Norberaren esku-lanaz gain, traktore eta erremolkeen beharra ere izango dute, «zaborra herrira garraiatzeko». Behin bilketa eginda, «Udalari eskatuko zaizkion zaborrontzi berezi batzuetan» sartuko dituzte herrian.

## «Herriko paisaiaren egoera»

Berastegi inguruko mendi eta erreken egoeraren inguruan, Aldin Elkarteak kezkatu agertu da. «darria da, zalantzarik gabe, gaur egun zaborra banatzeko, biltzeko eta birziklatzeko dauzkagun aukerak edukita, mendian zabor pilak nonahi sakabanatuta ikusi be-  
 harra». Mendiko zaborte-gi hauen zergatiaren inguruan, aukera ezberdinak jarri dituzte adibide bezala. «agian ezagutza faltarengatik, erosotasunagatik edota burua ez haustearren izan daiteke. Kontua zera da, herriko mendiak zabor piler betetzen ari zaizkigula eta egoera honen aurrean inork ezer egiten ez badu, zaborrak gaina hartuko diola gurea eta zaindu beharrekoa dugun paisaiari».

Aldinek beraz, Berastegiko mendi eta erreka bazterrek garbi eta txukun edukitzeko helburuaz, herritar guztiei parte hartzeko eskatzen die. Deialdia larunbat honetarako luza-dago, auzolanean aritu nahi duenak ingurunean garbitzen, azaldu besterik ez du.

## IBARRA ▶ POLITIKA



Ijurko eta Aramendik bost urte bete dituzte espetxean. HITZA

## Azken ostiralean omenaldi ekitaldia

Ekaitz Aramendi eta Eider Ijurko atxilotu zituztela bost urte bete ziren herenegun

## A. IMAZ

Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendi atxilotu zituztela, 5 urte bete ziren igandean. Ibarra-ko Etxeretek jakinarazi duenez, ostiral honetan omenaldia egingo die, lehengo astean bi urte espetxean bete zituzten Maite Aramendi eta Haimar Altunari bezala.

Azken ostirala izanik, 19:30ean Ibarra-ko sarreran kontzentrazioa egingo dute lehenik. Ondoren, giza katean herriko plazara joango dira eta bertan egingo dute omenaldi ekitaldia. Dantzariak eta bertsoak izango dira besteak beste bertan, aldarrikapen zehatzekin batera. «ez da ahaztuko behar, Eider, Ekaitz eta Minda ibartarrak zigorraren hiru laurdenak beteak dituztela, eta ondorioz kalean egon behar harko luketela», gogorarazten dute Ibarra-ko Etxeretek. Azkenik, Ion Mintegiaga preso politikoaren urtebetetzea dela eta, argazkia aterako dute plazan.

## Bost urte espetxean

Eider Ijurko eta Ekaitz Aramendiren sendiek «indartsu eta borrokan gogor» daudela jakinarazi dute «euren esku-bideen alde. Preso gaixoak eta hiru laurdenak bete dituzte-  
 nak kaleratzearen aldeko borroka gain, Parot doktrinaren amaiera eta estatus politikoaren aldeko borrokan» jarraitzen dutela jakinarazi zuten gurasoek. Horretaz gain, prozesu demokratikoan aurrerapausoak emateko, «barnean ezinbestekotzat ikusten dute amnistia eta autodeterminazio eskubidea onartuak izatea» senideen esanetan. «Etorkezinean presorik egon ez dadin, momentuko konponbideen gainetik, gatazkaren konponbidearen alde borroka egiteko beharra» azpimarratzen dute espetxetik senideen esanetan.

Espetxeko egoeraren inguruan berriz, «espetxe politikak berdin berdin jarraitzen duela» salatu du Ijurkoren aitak, «kanpoan aldaketa giroa dagoen bitartean, barnean egoera oso larria da. Ekaitzek adibidez ez du tailerretara joateko aukerarik eta Eiderri ikasteko oztopoak jartzeaz gain, ikasketak beka ere kendu diote espetxe zuzendaritzatik».

Amaitzeko, larunbatean Ibarra-ko egingo den Piparmen Egunaren oihartzuna iritxi zaiela jakinarazi dute senideen bitartez; «eskerak ematen dizkiegu, lagun, sendi eta herriari, une orotan beraien arnasa ondoan izan dugulako».

## hilberria ▶



### Iñaki Arbelegi Goenaga

(Belauntzako Udaleko alkatearen anaia)

Atzo hil zen, 48 urte zituela

Ez agurrik,  
ez adiorik,  
gero arte baizik

BELAUNTZA, 2007ko martxoaren 27a

## hilberria ▶

### Juan Jauregi Garmendia

'Juantxo'  
JAUNA

Atzo hil zen, 58 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.  
—Golan bego—

Bere emaztea: Manoli Irizar; seme-alabak: Joseba eta Maitane; anai-arrebak: Jose Antonio eta Manoli Jauregi, Patxi eta Feli Ezkurdia, Koldo eta Izaskun Karrera, Edurne eta Jose Olaizola, Kontxi eta Martin Eceizabarrena; ezkon anai-arrebak: Antton Irizar eta Mari Karmen Otamendi; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi-tz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela GAUR ASTEARTEA, arratsaldeko SEI ETA ERDIETAN, ANDRE MARIAREN ZERURATZEA parroki elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Santutxo

dharra ▶ Gorpuzia hileta-elizkizunaren orduan deli atarian hartuko da.

ALBIZTUR, 2007ko martxoaren 27a



### HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leizaldeko  
HITZAN jarri eta Gipuzkoako  
beste 4 Hitzetan DOAN  
agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

ALEGIA ▶

**Garagardo Azoka maiatza aldera egingo dute**

Aste Santu inguruan Alegian Garagardo Azoka egiten dute. Aurtengoa jadanik 4. urtea izango da, baina beste urteetan baino beranduago egingo dutela iragarri dute antolatzaileek: «Maiatza aldera egingo dugu, baina oraindik ez dugu egunik zehaztu, batez ere, inguruko herrietako jaiak ere kontuan hartu nahi ditugulako». Beraz, antolatu, antolatuko dute, baina maiatza aldera.

ALEGIA ▶

**Isabel Azpiroz en erakusketa jubilatuenen**

Isabel Azpiroz zizurkildararen erakusketa Alegiko jubilatuen tabernan izango da apirilaren 16ra arte. Bertan, paisai ezagunak ikus daitezke: Asteasu, Zizurkil, Donostiako Kontxa edo Haizeen Orrazia. Horrez gain, bodegoiak eta landareak ere badira. Ikusgai eta salgai izango dira berez donostiarra den margolari honen lanak. Asteartetik igandera bitarte izango dira.



Erakusketan ikus daitekeen margolanetako bat. I. AZPIROZ

LEITZA ▶

**Nafarroakoan Elozegi azkenaurreko**

Migel Mari Elozegi *Luze*, azkenaurreko egin zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketan, Bittor Elizagoienaren aurretik. Lehenengo aldiz izan da Nafarroako finalean *Luze*. Aurtengo txapela berriz ere Xabier Silveirarentzat izan bazen ere, adituen ustez, «ez zen besteetan bezain dizdiratsu aritu», baina giroari dagokionez, leitzarrek asko eman zuten Elizazondan: 1.000 ikusle izan ziren.

AMEZKETA ▶ PILOTA

**Berria Txapelketatik kanpo geratu dira**

56 tanto egin zituzten Irurtzungoen aurka Zugarramurdin, baina Zizurko bi txapel irabazi dituzte Zazpi-Ilturrikoek

NEREA URBIZU

Amezketako Zazpi-Ilturri pilota eskolak ezin izan zuen Zugarramurdin jokaturako Berria Txapelketako kanporaketa irabazi. Irurtzungoek egingo dute aurrera txapelketan. Xalton Zabala, partidak jokatu aurretik, arerio gogorrek izango zirela bazekien, baina partidak jokatu ondoren, «irabazteko gai izan ginela ikusi genuen».

56 tanto egin zituzten hiru partidetan eta arerioek, berriz, 61. Kadeteen artekoan Sukia eta Arzelus ibili ziren. «Sukia ondo ibili zen, Arzelus ere bai, 22-19 galdu zuten arren».

Jubeniletan Ropon-Leunda aritu ziren, eta «partida ona eta serioa egin zuten. Irabazten hasi ziren, baina 15. tantoan Roponek paretaren aurka kolpea hartu eta bizkarrean min hartu zuen: «Giharretako kontraktura dauka». Horrela bukatu zen norgehiagoka: 22-15 galdu zuten, «baina uste dut irabaztekoa izan zitekeela. Zorte txarra izan genuen», azaldu du Xalton Zabala Zazpi-Ilturriko prestatzaileak.

Nagusietan, Baez-Garmendia bikotea «ondo» hasi zen: 13-4 irabazten ari ziren, gero 20-10en ere izan ziren eta «dan handia egin zuten. 5 minutuko tanto luze bat egin zuten. Aspaldian ez nuen hainbeste sufritu tanto batekin. Bi tanto falta zitzaizkigun bukatzeko, eta aurkariek bi tanto behar zituz-



Leitzako Aurrera eta Zazpi-Ilturriko jokalariek aurreko kanporaketan jokatu zuten. Amezketarrak Berria kamixetadunak dira. SINADURA

ten txapelketan aurrera egiteko. Azkenean bi tanto egitea lortu zuten, eta nahiz eta guk irabazi, 22-17 ez zigun balio izan».

**Ostiralean GRAVN**

GRAVN Txapelketan ere ari da Zazpi-Ilturri. Binakako partida bat eta banakako beste bat izaten dira jokatzekoak, eta Gipuzkoa, Errioxa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako pilotariak daude. «Ostiralean Nafarroakoaren aurka dauzkagu bi partidak, 21:00etatik aurrera, Amezketan. Hauek gogorrek dira. Hurrengo astean Errioxaren aurka dauzkagu, eta hauek ez dira

xamurrak». Aurrekoetan Bizkaikoaren eta Arabakoaren aurka egin zituzten, eta bietan banakakoa galdu eta binakakoa irabazi egin dituzte.

Bestalde, Zizurko torneoon hiru pilotari izan ziren finala jokatzeko. Hirutik bik txapelak eskuratu zituzten: Aramako Iribarriak Jokin Altunari irabazi egin zion, 16-11. Erik Jaka lizarretarrak, berriz, 18-5 aise irabazi zion Apeztegiari, eta Joseba Gallurrek, markagailua justu, baina irabazi zuen ere, Ulangaren aurka, 18-16. «Txapelketa honetan, mailaka joan beharrean, adin berekoen artean jokatzeko da, hau da; urte berean jaiotakoaren artean bakarrik».

LEITZA ▶ AIZKORA

**Rekondok ia 3 minutu atera dizkio Esnaolari**

Alkizaletek ezin izan zuen Mindegiarekin

N. URBIZU

Lekunberrin jokatu zen igandean Urrezko Aizkora Txapelketa. Jon Rekondo leitzarrek bertan egindako saioarekin aurrera jarraituko du, Joxe Mari Esnaola menderatu baitzuen. Saio bikainak eskaini zituen, egindako guztiak irabazi baitzituen.

32 kolpe behar izan zituen lehen egurra bitan banatzeko eta 37, berriz, Esnaolak. Bigarren proban 45 ontzakoa ahalik eta denbora gutxiagoan mozteko, 45 segundo behar izan zituen, eta minutu eta segundo bat Esnaolak. Enborra zutik leitzarrek minutu 1 eta 20 segundo behar izan zuten, eta azkenik, bi kana-erdiko eta 60 ontzakoa 9.18 minututan egin zuten. Guztira, Rekondoren denbora 12.05ekoa izan zen, eta Esnaola elitearena 14.55ekoa.

Hurrengo norgehiagoka Unai Otaño ibartarraren aurka izan, baina entrenatzen ari

zela, gerri inguruko lesioa egin zuenez, ziurrenik ez da ariko larunbatean. Horregatik, Rekondo gaztea apirilaren 8an Huarte Arakilen ariko da Fausto Mugerzaren aurka. Leitzarrek «errespetua» dio Mugerzari, baina «zaila izango bada ere, beti dago irabazteko aukera hori». Irabaziz gero, beste eliteko mailakoren batekin aritu beharko du.

Lekunberriko proban bertako Joxe Juan Barberenak eta Xabier Mindegiak egin zuten aurrera. Hauek hurrengo asteburuan jokatu dute.

**Alkizaletek 10.33tan**

Asteasuko kanporaketetan, Jokin Alkizaletek hartu zuen parte. 18 urte azpiko mailakoa bada ere, Alejandro Mindegiagaren aurka lehiatu zen. Irabazi izan zen, eta Esnaola elitearena 10 minutu eta 33 segundotan egin baitzuen, Mindegiak baino 26 segundo gehiago behar izan zituen.

**iragarki laburrak ▶**

**SALGAI**

**Trikitixa.** Trikitixa saltzen dut. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 669 67 36 49.

**Sutarako egurra.** Sutarako pago egur lehorra salgai. Etxera entregatzen da. Deitu honako telefono zenbakira: 615 75 57 62.

**LANA**

**Gidariak.** Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuak deitu: 943 44 48 66.

**Garbiketa.**

Sukaldea, jangeletarako. Deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

**Sukaldaria.** Villabonan sukaldaria behar da. Informazio gehiago 943 69 19 33 telefono zenbakian.

**Zainketa eta etxeko lana.** Neska euskaldun bat behar dut haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 638 185 205. Harremanetan jarri nahi izanez gero, 19:00etatik aurrera deitu.



ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2007ko martxoaren 27a, asteartea ▶ V. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

10

hotzena

8

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA  
 (balantzak argitzeko, harpidetuen egileko...)

902 82 02 01

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Laskorain Ikastolako ikasle ohien afaria antolatuko bilera, 19:00etan Kultur Etxean.  
**Tolosa.** Ezker abertzaleak deituta, batzarra, 19:00etan, Kultur Etxean: Egoera politikoa eta maiatzeko hauteskundeak aztertuko dituzte.  
**Zizurkil.** Apirilaren 10etik 13ra *Aste Santuan jolastuz* programa izango da 1995-2003 urteetan jaiotako haurrentzat. Izen-ematea, Aurrera plazako udal bulegoetan, 5 eurotan.  
**Tolosa.** La Jara Extremadurako zentroak irteera antolatu du Extremadurara maiatzeko zubirako Trujillo (Caceres, Espainia), Don Benito (Badajoz, Espainia), Zafra (Badajoz), Jerez de Los Caballeros (Badajoz) eta La Serena (Badajoz) bisitatuz. Prezioa: 230 euro. Izen-ematea, 675 707619.  
**Leaburu.** 55ko kintoak hilaren 31n elkartuko dira. Izen-ematea, Ostatuan (943 671548).  
**Aduna.** Asvinenea kultur elkarteak Poltsikoko antzerki lehiaketa antolatu du. Lanak apirilaren 6rako aurkeztu behar dira Asvinenean (info@asvinenea.com, Zubitxiki 15, 20.150) 30 euro ordainduz.  
**Ibarra.** Udalak eta Uzturpe ikastolak gurasoentzako tailerrak antolatu ditu, arazoei nola aurre egin aztertzeko. Izen-ematea, udaldebeko gizarte zerbitzuetan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Lekunberri.** Mendia, B. Aralar, 25. 112.  
**Tolosa.** Azpiroz, L. Amaro azuoa, 9. 943 67 51 18.

**IRRATIA**

**Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (erreplikapena).  
 20:00-21:00. *Goiko eskolatik betti*.  
 21:00-22:00. *Izarrak eta ilargia*.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.



Batzuek taula gainean txiste kontaketa aritzen ziren bitartean, aulkietan eserita zeudenek ederki egiten zuten barre. I. GARCIA

# Egin lekua umoreari

**VILLABONA ▶** Umore onez hasi zen atzo Ernio-bea institutuan antolatu duten Euskal Astea, Asisko Urmenetaren solasaldiarekin eta txiste lehiaketarekin



Asisko Urmeneta komikigilea, atzo Ernio-beako liburutegian, solasaldiaren une batean. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

**E**rnio-bea institutuan atzo hasi zen Euskal Astea. DBH3 eta DBH4 mailakoei Asisko Urmenetarekin solasaldia izaten zuten bitartean, DBH1 eta DBH2koek txiste lehiaketaz gozatu ahal izan zuten. Bi ekitaldietan umorea zen nagusi, astea hasteko aldarte aproposa.

Urmeneta komikigileak *Gazteak eta euskararen erabilpena* hitzaldia eskaini zuen. Hitzaldia baino gehiago, solasaldi interaktiboa izan zen. Komikigile nafarra hizkuntza ez-formalaren inguruan aritu zen eta ikasleek laguntza izan zuten kaleko hizkuntzaren hainbat adibide aurkitzeko. Guztia Urmenetak ematen zioen umore ikutuarekin.

Bitartean, kiroldegian ere giro aparta zegoen. Txiste lehiaketan 20 lagun inguruk hartu zuten parte eta beraien ikaskideek ederki barre egin zuten. Gaurkoan, *Aupa Etxebeste* ikusteko aukera izango dute Ernio-beakoek. Umoreak garrantzia duen filma.

**AGURRAK ▶**



**ZORIONAK**  
 Gorki Tormo Odriozabala. Zortzi muxu, pottolo. Ondo pasa. Etxekoak.



**URTE ASKOAN**  
 Eñaut Agirrezabala Murua (Alegia). Aupa txapeldun! Zorionak etxekoek partetik!

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...